

Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Munduko artista guztiok elkar gaitezen!

Aspaldi zaharrear, desiratzeak balio zuen garaian, antzerki biltzar bat egin zen Zarautzeko aterpetxean. Bertan ikusi eta entzun nuen lehen aldiz Helder Costa antzerkigile portugaldarra. Bilkura hartatik dudan oroimenik garbiena da Costak bere hitzaldia nola hasi zuen: “Ni marxista-leninista naiz”; eta handik aurrera antzerkiaz mintzatu zitzaigun.

Jakina gaur egun halako sarreerarik egingo duenik ez dugu topatuko, baldin eta pertsona zaharkitutzat hartzea nahi ez badu behintzat. Eta beharbada normala izango da. Halakoak bestelako foroetan entzuten genituen, beti ere ideia ideologikoen aldarrikapen foroetan, ezkerreko mugimenduetan eta langile eta ikasleen proklametan. Antzerki bilkura batean ordea... Jakina, baziren ideologi horretan lerratzen ziren hainbat eta hainbat antzerkigile eta antzezleri. Izan ere, kulturaren munduak ezkerrekoa baino ezin zuela izan zirudien; 68ko maiatzaren eraginak agian.

Kontuak kontu, mintzaldi hartan interesgarriena izan zen bere antzerkigintzaren jarduna abiapuntu ideologiko batekin lotzen zuen bidea. Gogoeta sakon bat zegoen bere antzerkigintza eta jarrera ideologikoa lotzeko orduan, koherentzia mantentzeko garaian. Eta guzti



CONNY BEYREUTHER

hau etorri zait burura egungo egoera sozio-ekonomikoa ikusita.

Arte eszenikoetan, jendartean bezala, badirudi ideologiak desagertu egin direla. Kezka dut ez ote garen buru belarri sartu kultur alienazioaren atzaparretan. Jakina, gauza ez da eskenatokia bandera gorritz estaltzea, baina Marx irakurrita zerbait ikasi banuen izan zen langileak duen gauza bakarra bere lan ahalmena dela eta hori defendatu beharko duela eroslearen aurrean. Arte eszenikoetako langileok zer dugu saltzeko, edo “eskaintzeko” nahi bada, gure sormen ahalmena ez bada?

Horretan ez gara beste edozein langileren ezberdinak. Jendartearen gorabehera sozialak eta ekonomikoak guregan badute eraginik, are gehiago kulturgileen lan prekarietatea kontuan hartuta. Zergatik orduan ez zaigu kolektibo gisa ikusten halako egoerak salatzen eta bestelako antolamendu sozial zein ekonomikoa aldarrikatzen? Komunikatuak sinatzen ditugu, hango eta hemengo aldarrikapenak sustatzen, geure izena eta aurpegia erakusten, baina sektore dinamikoa ote gara jasaten dugun antolamendu ekonomiko-sozial

honen salaketan? Orduko hartan Helder Costak zioen marxista-leninista zela, eta nik... nik gustukoa dut oso Helder Costa. ■

«
Arte eszenikoetan, jendartean
bezala, badirudi ideologiak
desagertu egin direla. Kezka
dut ez ote garen buru belarri
sartu kultur alienazioaren
atzaparretan
»

TXANDAN

Andoni Mujika

Gerra moralari



Zalantza izugarria sortzen zait, zalantza mingarria, Jainkoaren osotasunetik, naturatik edo

beste edozein indar super-ahaltsuren adimen miretsietatik pertsonaren edota izadiaren perfekzioaz hitz egiten denean. Badirudi, ahalguztidun horiek denak jasotzen dutela jakintza totalaren eksklusibitatea. Pertsona eta izadia metabolismo perfektua omen dira, eta baieztapen hau, modu sasi-solemnean entzuten dut tarteka. Arrazoi bakar batek eusten nau holako liluren aurrean zaunka ez hasteko: susmoa dudala ea moralak, mila bertsio desberdineko degenerazio suntsitzaile horrek, ez ote

duen gure inperfekzio nazkagarri eta alferrikako guztien erantzukizuna.

Zoritxar askoren iturria ez ote den. Baina ez dut garbi. Hau da kristoa. Inporta zait guzti hau, imajinatuko duzunez, ez diskisizio filosofiko bat egitearren, hobeto bizi-tzeko ametsari erantzuteko baizik. Konbikzio gero eta indartsuagoa daukat maila globaleko irtenbide gaitza dugula, baina behintzat, moralaren —laikoa edo erlijio-soa— logikari gerra egin behar diogula. Karga hori arinduta gehiago disfrutatuko genuke eta hori, berez da ona eta naturala. Amaitzeko, desintoxikazio prozesu honek ez du neurrigabetasuna handitzen, ez dut uste. ■